

# ...eta kitto!

807 zkia. 2012-V-25

ASTEKARIA



## Baserritar jantzi eta... HASI DANTZAN!

konbinatu



gratuak  
egurtikatu gratukatu

97€



Bidebarrieta, 2

Tel.: 943 20 05 22

EIBAR

**MULTIÓPTICAS**

lehena zerbitzu optikoetan

Bidebarrieta, 5



Tel. 943 201 547

# CAPI

*Zure edertasunaren zerbitzura!*

## Gorputz tratamenduak

KOIBE GUTXITZEA  
ZELULITIS GUTXITZEA  
AZAL INDARTZEA



### TEKNIKAK:

- Kabitazioa
- Radiofrequentzia
- Laser lipolitikoa BERRIAII

**35€ saioa**  
**BONAK DAUDE**

## Masajeak


- OSTEOPATIA
- KIROMASAJEA
- MASAJE TERAPEUTIKOAK
- REFLEXOLOGIA

## Aurpegi tratamenduak

- Mikrodermoabrasioa
- Radiofrequentzia (zimurrak)
- ...

AURPEGI ETA GORPUTZ RADIOFREKUENTZIA - KABITAZIOA - LASER DEPILAZIOA

OSTEOPATIA - REFLEXOLOGIA - KIROMASAJEA



MESOTERAPIA - GEL AZAKALAK - IA BETIRAKO ESMALTATUA

AURPEGIKO FOTOGAZTETZEA - MIKRODERMOABRASIOA

## IES UNIBI

# AUKERA ZABALENA

ADIRREMATRIKULA: HAIATZAREN 28TIK EKAINAREN BRA  
MARIKULA: UZTAILAREN SETIK 11RA

### INFORMATIKA

- Mikroinformatika (100 maila)
- Paralelismo aritmetiko sistema administrazioa (100 maila)
- Sareko informatika sistema administrazioa (100 maila)

### MARKETING ETA MARIKATUTZA

- Marketing eta MARIKATUTZA (100 maila)
- Marketing eta MARIKATUTZA (100 maila)

### HEZIKETA ESKAINTZA: A ETA D EREDUAK

### ESKAINTZA PARTZIALA

- Sabala Probak eta prebentzioa
- Jaki unibertsarioa
- A. Bete C. unibertsarioa
- Administratiboa (100 maila)

### PROIEKTUAK ETA JARDUERAK

- Marketing eta MARIKATUTZA
- Marketing eta MARIKATUTZA
- Marketing eta MARIKATUTZA
- Marketing eta MARIKATUTZA
- Marketing eta MARIKATUTZA
- Marketing eta MARIKATUTZA
- Marketing eta MARIKATUTZA
- Marketing eta MARIKATUTZA
- Marketing eta MARIKATUTZA
- Marketing eta MARIKATUTZA

### HEZIKETA ZIKLOAK

- HEZIKETA ZIKLOAK
- HEZIKETA ZIKLOAK
- HEZIKETA ZIKLOAK

### ADMINISTRATUTZA

- Administratiboa (100 maila)
- Administratiboa (100 maila)

### BATXILERGOAK

- Batxilergoak
- Batxilergoak
- Batxilergoak

### ENPLEGURAKO FORMAKUNTZA

TEL: 943 20 84 44

www.iesunibi.com unitesunibi.com



**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkarte  
**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartea  
20600 Eibar  
**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18  
**FAXA:**  
943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**  
erredakzioa@etakitto.com  
komunikabideak@etakitto.com  
publizitatea@etakitto.com  
**Elkartearen E-MAILak:**  
elkartea@etakitto.com  
normalizazioa@etakitto.com  
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu  
Maidar Aranberri  
Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi  
Silbia Hernandez  
Koldo Mitxelena

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEÑUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Leire Iturbe

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

8.000 ale

**INPRIMATEGLIA:**

GERTU koop. (Onati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\*)k ez du bere gain hartzen al-  
dikarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**IRABOLIKA / IROLIKA.-** Porlan hidraulikoa. "Irabolikiakin bete dabe ormako zuluaz".

**IRA(G)O/IRAGOTU.-** Altzairu tenplatuari ematen zaion tratamendu termikoa, tenpleak eman dion gogortasuna neutralitzeko gehienetan. "Iragotizu apur bat geixago gubil-zabal hau". Lotsatu, gorritu. "Esan zetsazen berbekin iragotuta laga eban".

## ESKUTITZAK

### MAIXAK EGINDAKO INKESTARI BURUZKO KOMENTARIOEI ERANTZUNEZ

**Maixatik,** azken egunotan Udaletik guk egindako inkestaren gainean egin diren komentarien bidera atera nahi genuke, eztabaida sortu baitute jasotako emaitzek. **Maixak,** elkarte moduan, ez du inkestan aztertu diren gaien inguruko iritzi zehatzik (Inkesta: Multzo bati buruzko informazioa biltzeko metodoa, pertsonen galderak egitean datzana. Elhuyar hiztegia). MAIXAn elkartzeko gaituena Eibarren egoera hobetzeko ardura da, eta interes partikularrik gabe eta ahal dugun modu onenean, dauden ahots eta datuak azalartzen saiatzen gara.

Esan bezala, inkestak ez du **Maixaren** iritzia adierazten, bete duten 188 herritarrena baizik. Gogorarazi nahi genuke parte-hartzea herritar guztiei zabaldu zitzaizela, tokiko komunikabideetan azaldu gure moduan. Jakitun gara inkestaren irismena mugatua dela. Gainera, ez gure espero inkesta guztiz zientifikorik lortzerik 0 euroko aurrekontuarekin. Hala ere, uste dugu emaitza eta iritzi oso errespetagarri eta esanguratsuak lortu ditugula.

2009ko eta 2012ko inkestek oso antzerako emaitzak ematen dizkigute, kasu askotan dezima txikieta-ko diferentziak. Honi balio handia ematen diogu, kontutan izanda 2009an 55 emaitza izan genituela eta

2012an 188. la 4 aldiz gehiagoko parte-hartzearekin (herritar guztiei zabaldua) emaitza aldaketa handia izan genezakeen. Baina ez da horrelakorik gertatu.

Gure 2009. urteko inkesta eta Udalak garai hartan Gizakerri enkargatutakoa alderatuta, emaitza oso antzekoak lortu ziren, nahiz eta metodologia eta aurrekontu hain desberdinak izan (**Maixarenak** 0 euro). Hau 2009/7/23-an eman gure gure prentsaurrekoan aipatu gure. Ez dugu espero Udaleko arduradunek emaitzak bete-betean hartzea. Guk nahi duguna da beren eskutan zenbait datu jartzea, jakin dezaten hainbat gairen inguruan herritar askoren ardurak zeintzuk diren. Lehentasunak jarri, kontutan hartu edo ez, hori beren eskutan dago. Ez dugu interes politikorik, eta nahi dugun bakarra da, Herritarren Parte-hartzea bultzatzea, gure hiria hobetu nahian eta Elkarbizitza ingurune egoki batean.

Ez dugu dibergentzia honekin jarraitzeko intentziorik, eta idatzi honekin bukatutaz eman nahi dugu. Aldiz, orain arte egin dugun moduan udal gobernu taldeekin kolaboratzen jarraitzea da gure intentzioa, berdin dio zein kolorekoak diren, beti ere lehenago aipatutako helburuak bultzatu nahian.

**MAIXA, EIBARKO HERRITARREN PARTE-HARTZE MAHAIA**

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Teknologia berriek eta sare sozialek gazteen arteko harremanak aldatu dituzte, baina hain agerian egotea desberdina da mutilentzat eta neskentzat. Mutil baten-  
tzat ere badago kontrolatua izateko arriskua, baina alde  
aldea da haien oso barmatuta daukatela euren mugak  
garrantzitsuak direla, eta azkarrago konturatzen dira  
neska bat jeloskorra denean, edo kontrolatuta senti-  
tzen direnean errazago jartzen dute distantzia. Nes-  
kentzat mugak ipintzea zailagoa da, ez dutelako senti-  
tzen espazio propio horren beharra; sarri, harre-  
man afektibo bat edukitzeak denerako egotea esan  
nahi du haientzat"


(Ilanire Estébanez, psikologoa)

"Badira hainbat minbizi mota erabat sendatzen direnak,  
tardean linfoma batzuk, leuzemia batzuk eta bar-  
rrabil minbizia, kasurako. Beste fronte batzuetan min-  
bizia kroniko bihurtzen ari gara, adibidez bular min-  
bizia. Biriketako orain hasi gara kroniko bihurtzen,  
zenbait kasutan; orain gutxi arte ez zegoen zer eginik.  
Ez dut ukatuko, hala ere, zenbait frontetan erabat gal-  
durik gaudela, adibidez, pankreaseko minbizietan.  
Badira minbiziak inolako biziraupenik gabekoak.  
Azken finean, hobea da minbizi bat gaur egun eduki-  
tzea orain dela hamar urte edukitzea baino, eta are  
hobea izango da hamar urte barru edukitzea"

(Manuel Serrano, CNIOko onkologia ataleko ikerlaria)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)



Eibar Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria


## Diputaziñuak bere proiektuak presentauko ditte

**ASTE HONETAN BERTAN EKINDAKO BIDIARI JARRAITUTA, MARTIN GARITANO DIPUTADU NAGUSIXA** eta gaiñontzeko diputauak Eibarrera etorriko dira datorren asteko barixakuan, ekaiñaren 1ian, herritarren aurrian Gipuzkuako Foru Aldundixaren proiektu eta lehentasunak esplikatzera. Diputaziñuan duguaz sail diferentier lotutakuak azaltzeko billeria Armerixa Eskolan izango da, 19.00etan hasita eta bestiak beste euskeria, bardintasuna, aniztasuna, migraziñua, giza-eskubidiak, memorixa historikua, kultura, gazterixia, kirola, gizarte politikako gaixak, ogasun, finantza, barrikuntza, turismua, landa garapena, garraia eta hondakiñen kudeaketia modukuak osatuko dabe azalpenaren punto nagusixak. Honetxek aurkezpen billerak dira, baiña errondia amaituta, aurrerago beste billera batzuk egingo dirala aureratu dabe Diputaziñotik, *"herritarren proposamenak jasotzeko eta parte-hartze prozesu aktibuk martxan ipintzeko"*.



## Konziliaziño familiarra mintzagai

**MUJERES AL CUADRADO ALKARTEKUAK HITZALDIXA ANTO-LATU** dabe datorren asteko eguenerako, (18.00etan Portalean, areto nagusixan): Raquel Royo Prietok "Maternidad, paternidad y conciliación en la CAE. ¿Es el trabajo familiar un trabajo de mujeres?" izenburuari jarraituko detsa, horren inguruan egin daben eta Emakundek argittara emon daben ikerketia presentautu.




Iazko Ekintzailliaren Eguneko irudixa. Hitzaldixekin batera, Enpresen Azokia be izango da bertan.

## Ekintzailliaren Eguna Debegesan

**URTEROKO MODUAN, DEBEGESAK EKINTZAILLIAREN EGUNA OSPATUKO DAU DATORREN ASTEKO EGUAZTENIAN,** 18.00etatik aurrera. Bestiak beste, Enpresen Azokia antolatu dabe, eskualdian sortu barri diran enpresak euren zerbitzuak eta produktuak ezagutzera emon deizen. 18.40ak aldera Isabel Santiago ekintzaile eta coach-ak hitzaldixa eskinduko dau eta Debabarreneko ekintzaile talde batek abian ipiñi daben Ekingune ekimenaren presentaziñua be egingo dabe. Debabarrena Ekinean 2012 errekozimenduak egiñ ostian, Bacoleku arandegixaren eskutik Heras Cordón bodegako arda-dastaketiarekin agurtuko dabe ekitaldixa. Parte hartu nahi dabenak aurretik izena emon biharko dabe, debabarrenaemprende@gmail.com helbidera idatzitta edo 943 82 01 10 telefonora deittuta (Vanesa Hortas).

## Erretziari lagatzeko laguntasuna

**EGUENA TABAKO BARIKO MUNDU EGUNA DALA-ETA, DEBABARRENEKO ERAKUNDE SANITARIO** Integratuak (ESI-k) eta Minbizixaren Kontrako Al-




kartiak, beste hainbatekin batera indarrak batuta, datozen eguntan herririk herri hainbat ekimen eskintzen jardungo dabe, erretziailleri arreta integrala emoteko asmoz. Eibarrera eguaztenian etorriko dira eta Untzagan 10.30etatik 13.30etara ipiñitta egongo dan karpan erretziari laga nahi detseneri arretia eskinduko detse mediku, erizaiñ eta psikologuak. Bestiak beste, laguntasun billa doiazeri proba fisikuak (espirometrixak eta koximetrixak) eta nikotinarekiko menpekotasun-mailla neurtzeko galderak egingo detsez Gipuzkua Kerik Gabe izenburuko kanpaiñaren barruan.

*Eskerrik asko, ama, eskaini dizkiguzun eta hainbeste estimatzen ditugun laguntza eta ardurarengatik.*

DENON PARTEZ

*Felisa Urkiola Malaxetxeberria (2012-V-21)*





## Eibarko Zentru Medikuak 25 urte egitten ditu

**1987-AN SORTU ZENETIK MENDE LAURDE-NA BETETZEN DABELA** ospatuko dabe Urkizuko torrietan dagan Eibarko Zentru Medikokuak. Ekitaldixa maiatzaren 30ian, eguaztenian, egingo dabe: *“Zeozar xumia izango da eta luntx-a eskinduko dogu. 20.00etan egingo dogu eta, lehen-go eta gaur egungo medikuekin batera, beste sendagille batzuk be izango dira eta baita udaleko eta herriko beste ordezkariak be”,* diño Silvia Zuluagak, aurten urtero aldatzen doiazan gerentziaren arduria daroian zentruko medikuak. Ospakizunak, dana dala, ez dira ekitaldi horretara mugatuko, *“Ikasturte barrixarekin, oktubrian hasi eta datorren ekaiñera arte, hainbat hitzaldi eskintzeko asmua dogu-eta; horretarako, dagoeneko kontaktatu dogu beste sendagille kolaboratzaillerekin”.* Gaur egun hogei espezialidade dittue,



Urkizuko Zentru Medikuak egun berezixa biziko dau eguaztenian. / S.H.

*“mediko-kirurgiko ixa danak”,* Zentru Medikuan eta urte guzti horietan 50 bat medikuk egin dabe lan Urkizuko zentruan.

## Kaleetan Kantuz-ekuen jaixa

**EKAIÑAREN 2XAN AGURTUKO DABE KURSUA KALEETAN KANTUZ-EKUKA** eta horretarako, azkenurtiotan egindakuaren bidetik, programaziño berezixa preparau dabe: 11.00etan Untzagako jubilau etxian ekingo detse egunari, alkatia ongi-etorrixa egiñ eta, hamarretakua hartu ostian, bakotxak bere kantu-papela hartuta; eguardixan Eibarko kalietan kalejiran, kantuan ibilliko dira eta, 14.00xak aldera atzera be Untza-

gara bueltauta, pare bat kanziño gehixago eskin-du eta alkarrekin bazkalduko dabe. Bazkarira geratu nahi dabenak 16 euro sartu biharko dittu Euskadiko Kutxako (Laboraleko) 3035 0209 95 2091004950 kontu korrontian edo, nahixago dabenak, tiketa erosteko aukeria be eukiko dau Ikasten-ekuen klasietan, Kaleetan Kantuz-ekuen entseguetan edo 605711794 telefono zenbakira deittuta (Elisa).

## Euskal hedabideen diagnostikua Diputaziñora

**AURREKO ASTIOTAN EUSKO JAURLARITZAN ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIXAN EGINDAKUAREN BIDETIK,** herri ekimeneko euskal hedabidietako ordezkariak azken urtian



Euskal hedabidietako ordezkariak Gipuzkuako diputatu nagusixarekin.

sektoriaren gaiñian egindako diagnostikua presentau dabe Gipuzkuako Foru Aldundixan. Xabier Letona Argiako zuzendarixa, Iban Arregi Berrria taldeko hedabidien arduraduna eta Inazio Arregi Tokikom-eko zuzendarixa Martin Garitano ahaldun nagusixarekin eta Zigor Etxeburua euskara-zuzendari nagusixarekin bildu ziran aurreko astian, hedabidien gaiñeko diagnostikua eta erronkak jasotzen dittuan txostena azaldu eta aurrera begirako asmuen barri emoteko. Billaeria aprobetxauta, hedabidiekin eta beste erakundiekin batera hausnarketa-mahai bateratua eratzeko inbitaziñua egin zetsen Diputaziñuari.

## autuan

### JARDUNALDIXA

Gigabyte Overclocking School izenburuko jardunaldixa hartuko dau Armerixa Eskoliak eguaztenian, 09.00etatik aurrera. Bestiak beste, Hardware eta Overclocking-arekin lotutakuak landuko dittue.

### SANJUANETARAKO POSTUAK

San Juan jaixetan kale-salmentan jarduteko atzoko zozketan onartutakuen zerrendia [www.eibar.net](http://www.eibar.net) web orrixan, ediktu-taulan eta Pegoran ikusteko moduan ipiñi dabe.

### IKASLENDAKO BEKAK

El Corte Inglés-ak babestuta, Armerixa Eskoliak 30 beka emongo detsez arazo ekonomikuak dittuen ikasleri. Eskeria egittian ikasliak gitxienez hiru hillebete lan-billa diharduala edo, bestela, bere famelixa-unidadia osatzen daben lagun guztiak langabezixan daguazela erakusten daben agirixak presentau biharko dittu. Uztaillaren 5etik 11ra bittartian onartuko dittue eskaeriak, eskolan bertan.



## ENRIQUE ELUSTONDO BERGARA

(2012ko maiatzaren 13an hil zen, 67 urterekin)

**URAK DAKARRENA URAK DAROA  
ZUK EMANDAKOA  
GUREKIN GERATZEN DA  
Zure familia**



**asteko**  
**%22,63**  
**datua**

da industriak dakan pisua-gure herriko aktibidadietan.

Oso baxua eskualdeko beste herrixekin alderatuta, azken horietan %40aren bueltan dago-eta.

Zerbitzuen arlua da gehixen hazi dana gurian, %71,54raiño iritsitta.

## Eibartarrak makiña-erreminttaren bienalian

**ASTELEHENIAN ZABALDUKO DABE BARAKALDOKO BEC-EN EKAIÑAREN 2RA ARTE MARTXAN** egongo dan Makiña-Erreminttaren 27. Bienala eta, ohikuari jarraituta, 50 herrialdetatik azokara parte hartzera juandako 1.163 firmen artian eibartarrak be izango dira: CIC Margune, Danffor Sist. Int. Ind. SL, Delteco SA, Egasca SA, Tekniker Fundazioa, Izalan SL, JAZ Zubiaurre SA, Metronic SA eta Neurtek SA enpresak sektore diferentietarako ekoizten dittuenak erakutsi eta saltzen topauko dittue ferixara bisittan doiazenak. Azokia egunero 10.00etatik 18.30xetara zabalduko dabe, etenaldi barik.



## Sektore publikuaren murrizketen kontra

**EGUAZTENIAN BERGARAN EGINDAKO AGERRALDIXAN, LAB SINDIKATUKO ORDEZKARIXAK** zerbitzu publikuetan etenbarik aplikatzen

diharduen murrizketen kontra agertu dira atzera be eta horren harira maiatzaren 31rako mobilizaziñuak iragarri dittue: *"Aurreko astian hezkuntza eta osasun arluetako erreformak onartu zittuen Kongresuan. Sektore publikoko bihargiñak garan neurrixan erasua birrittan jasan bihar dogu, bihargin modura eta herrittar modura eta, horri erantzuteko, hillaren 31rako deittutako protesta deialdixekin bat egingo dogu. Egun horretan Nafarruan egun osoko grebarekin bat egittera deitzen doguz herritarrak eta EAEn, barriz, bihargiñen batzarrak, ordu biko lanuztiak eta bestelako mobilizaziñuak egingo dira".* Gure eskualdian 12.30xetan izango dira elkarretaraziak, Eibar eta Sorluzeko plazetan eta Mendaron, ospittal parian.



## "Dantzatu gurekin Tour 2012" ikuskizuna

**BIRAKA DANTZA TALDEKUA IKASTURTE AMAIERAKO IKUSKIZUNA,** Dantzatu Gurekin Tour 2012 dalakua eskinduko dabe Coliseuan datorren astian, hillaren 30ian eta 31n eta ekaiñaren 1ian, 20.00etan. Birakakuen berbetan, *"sarrerak salgai dagoz eta segiduan amaittuko dira, jendia dantza ikuskizuna ikusteko irrikitan dago-eta. Lady Gagarekin bira amaittu barri daben The Faboulous Biraka Dancers taldiak musika-estilo diferentiak eskinduko dittu 70 miñutuko espektakulan".* Aurrerago Elgoibarren, Deban eta Urkiko jaixetan be jardungo dabe dantzan. Bestalde, datorren ikasturterako matrikulaziñua zabaldu dabe (ekaiñaren 22ra arte) eta izena emoteko Birakaren lokalera jua bihar da (Txirio kale, 1). Gitxieneko adiña 4 urtekua da.



## Goazen Plazara jai arrakastasua

**EIBARKO HERRIRAK ANTOLATUTA, GOAZEN PLAZARA GOAZEN UNTZAGARA** presuen eskubidiak aldarrikatzeko ekimena ospatu zan zapatuan. Egun osuan eurixa lagun izanda be, aurreikusittako guztiak egitteko aukeria euki eben: goizian umiendako preparau zittuen taillar, jolas eta Nerea Ariznabarreta ipuin kontalarixaren saiuaeren ondoren, ekitaldi politikuarekin eta herri bazkarixarekin biribildu eben eguna. Eibarko Herrirak *"ekimenean parte hartu eta aurrera eteratzen lagundu eben guztieri eskerrik beruena"* emon nahi detse eta, bide batez, gaur 19.30xetan Untzagan giza-kataia osatuta Azken Ostirala egingo dala gogorarazi.


## Abontzako jaixak martxa betian

**BARIXAKUAN HASI ETA DOMEKARA BITTARTIAN EDERTO IBILLI ZIRAN ABONTZA INGURUAN,** Abontzako Itturrixa alkartiak antolatutako jai egitarauari esker. Barixakuan DJ Xaiborrek dantzan ipiñi zittuan Egigurentarreneko parkia betetzen eguazen ume eta nagusi guztiak. Eta jaixak asteburu osuan segidu eban, umiendako jolas, lehiaketa, karaoke eta gastronomixari eskindutako ekitaldixekin.



Azken egunotan Eliza katolikuak IBI-xa edo higieziñen gaiñeko inpuetua ez dabela pagatzen-eta, batek baiño gehixagok diño holako salbuespenak pribilegixuak baiño ez dirala. Edozelan be, estaduan zerga hori pagatzeko obligaziñorik ez daken beste batzuk be badagoz, tartian estaduaren eta erkidego autonomuen jabegua diranak. Ondo dago holako entidadiak ez pagatzia?

## Zelan ikusten dozu Elizak-eta IBI-xa ez pagatzia?



**SUSANA BLÁZQUEZ**  
41 urte  
langabezixan

Jakiña eurak be bardin-bardin pagau biharko leukiela inpuetua. Ez dabe zertan holako edo bestelako pribilegixorik euki bihar.



**FELIX LÁZARO**  
60 urte  
etxeke-gizona

Pentsatzen dot danak garala Jainkuaren seme-alabak eta, beraz, danok dittugula obligaziño eta eskubide berberak. Ez dogu dana betiko moduan herritarrak pagauko.

**IÑIGO JAUREGIBARRIA**  
41 urte  
bihargiña

Pentsatzen dot eurak be bes-tion modura pagau biharko leukiela, ez dabe zertan pagatzeko obligaziñotik librau bihar. Bakarririk euren IBI-xak diru mordua, milloiak egitten dittu.



**OLGA SETIÉN**  
57 urte  
langabezixan

Elizakuak be bardin-bardin pagau biharko leukiela pentsatzen dot, azken batian abadiak-eta estadutik kobratzen dabe. Egixa da karidade-lanak egitten dittuela, baiña bestela be laguntzen jakue.



**Funeuskadi Eibar**  
SERVICIOS FUNERARIOS

Selloak: Funeuskadi Eibar, Oteiza, 77. Bulegoa: Euzkadi, 6.

**24 orduko zerbitzu iraunkorra**

☎ 943 82 15 39 - www.funeuskadi.com

**Funeuskadi**  
Euzkadiaren Funerarioak

Eibar - Buzketa - Billaio - Borsualde - Leiza - Getxo - Gernika - Portugalete - Santurtzi - Balañakoa - Sarriena - Euzkadi de las Muerteras

**Helbidea**  
URKIZU PASEALEKUA, 13  
Orbeako dorreetako  
1. solairua




**CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA**

☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04



1 Kardiologia	10 Barne Medikuntza
2 Zirugia	11 Radiologia
3 Dermatologia	12 Urologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	13 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	14 Koloproktologia
6 Ortodontzia	15 Erizaintza
7 Otorrinolaringologia	16 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8 Pediatria	17 Foto-depilazio Unitatea
9 Psikiatria	

# Urkizutik Untzagaraino TANTANEZ TANTAN igo zan GANTXILLA

Hirugarrenez ospatu genduan zapatuan Tantanez Tantan euskeriaren aldeko jaialdixa, Urkizuko iturririxan gantxilla urarekin bete eta Untzagaraino eskurik esku pasauta. Eibartar mordua hartu eban parte ekitaldixan, eurixarekin beldurtu barik illada luzia osatuta eta, gainera, Eibarko Euskalgintzakuak antolatutako jaialdixaren aitzakixarekin, herriko hiru talderi omenaldi txikixa egin jakuen ibilbidian: Urkizuko iturririxan bertan Asola Berri alkartiari, bere sorreriarren SO. urteurrenarengaittik; Ibarkurutzen Casino Artista Eibarrés-i, bere sorreriarren mendeurrenien; eta Untzagan Armerixa Eskoliari, honek be bere sorreriarren mendeurrena ospatzen dihardu-eta. Antolatzailliak eskerrak emon nahi detsez jaixarekin bat egittera animau ziran guztieri eta hurrengo hitzordua hamendik urte bira izango dala gogoratu nahi detse jendiari.








## ESKERRIK ASKO DANORI

ARGAZKIAK: Ekhi Belar, Silbia Hernandez eta Leire Iturbe

 Argazki bilduma Etakitto-ren orrian, Facebook-en.



Aurten 40 urte betetzen dituduen UEUren udako ikastaruetan izena emoteko epia zabalik dago. UEUK egoera ekonomiko larrixari aurre egin bihar badetsa be, azken urtiotako ikastaro eskintzarik haundixena preparau dau, "bere biharraren premiñia azpimarratu eta ahalik eta matrikula gehixen lortzeko" asmoz. Urteroko martxiari jarraituta, ikastaruak Eibarren (ekaiñaren 26tik 29ra eta uztaillaren 9tik 13ra), Baionan (uztaillaren 4tik 6ra) eta Iruñean (uztaillaren 16tik 18ra) eskinduko dira.

**O**in dala egun batzuk aurkeztu ditudue udako ikastaruak Karmele Artetxe UEUKo zuzendarixak eta Irati Iciar udako ikastaruetako arduradunak. Karmele Artetxek presentaziñuan esandakuaren arabera, "40 urte beteko ditudue aurten UEUren Udako Ikastaruak, lau hamarkada dira euskeriaren eta unibersidadiaren alde biharrarian. Denpora hone-tan UEUren ekarpena haundi-xa izan da: euskeria unibersi-dade esparruan lantziaren aldeko apustua, euskerazko hiz-tegi teknikuaren definiziñua, euskal komunitade zientifikua-rendako bilgune izatia, proiektu barrizaiñiak martxan jartzeko gaittasuna, unibersidade-mai-llako testugintzan eta formazi-ñuan egitten daben erreferen-tziatzko biharra eta, jakiña, eus-kal unibersidadiaren aldarrixa".

UEUK bestela ospatu biharko

leukian urteurrena, baiña, diru-arazuak illunduta dator. Zuzen-darixaren berbetan, "Eusko Jaurlaritzak UEUri partida izen-duna kentzeko erabagixa guz-tiz bidegabia" begittantzen jakue eta ekitaldixan datorren ur-tiari begira hausnarketia egitte-ko eskaeria be luzatu detse Jaurlaritzari.

Edozelan be, etorkizunari modu positibuan begiratzen detse: "Aurretik be bizi izan dit-tugu egoera larrixak eta oin-guan be aurrera egingo dogu. Izan be, gure bazkide eta gertu dit-tugun erakunde eta bana-kuak erakusten diharduen ba-besa eta laguntasuna izugarri-xa izaten dihardue eta horrek beste 40 urtian aurrera egitteko nahikua indar emoten desku".

#### 22 ikastaro Markeskuan

Irati Iciar udako ikastaru-entzako arduradunak esandakuari ja-



rraituta, "40. urteurrena ospat-zeko aurten 40 ikastaro anto-latu ditudugu, azken urtiotako kopururik haundixena. Erronka haundixa izan da krisi sasoi-an horrenbeste ikastaro antolat-zia eta, gaiñera, betiko kalidadi-ari utsitta. Oin matrikula kopu-ria be azken urtiotako haundixena izatia geratzen da". Ikastaro-zerrendia hartuta, erdixa baiño gehixago, 22 hain zuzen be E-i-barren bertan eskinduko ditudue,

Markeskua jauregixan. Horre-kin batera, Baionan emongo dit-tuen 8 ikastaruak eta Iruñeko beste hamarrak osatzen dabe aurtengo eskintza. Ikastaruak sei jakintza arlotan banatu dit-tue (arte eta musikia, giza zientziak, ingeniari-tza eta tek-nologixia, osasun zientziak, zientziak eta gizarte zientziak) eta bakotxari buruzko informa-ziñua aldameneko zerrendan irakorri zeinkie.

## UEUren 2012ko Udako Ikastaruak

### ARTEA ETA MUSIKIA


"Marrazki bidez kontatuko dizut!" .....	Eibar, ekaiñak 28-29	14 ordu
"Musika-hezkuntzarako baliabide tekniko eta espresiboak" .....	Baiona, uztaillak 4-5	14 ordu

### GIZA ZIENTZIAK

"Txillardegi testuz testu" .....	Eibar, ekaiñak 27-29	22 ordu
"Sozialismoa XXI. mendeko Euskal Herrian: gizarte eredu berri baten alde" .....	Iruñea, uztaillak 16-18	22 ordu
"Euskal emakumeen historia osatzen" .....	Eibar, uztaillak 9-10	14 ordu
"Nafarroaren konkista, iragana eta oraina" .....	Iruñea, uztaillak 16-18	24 ordu
"Euskararen berreskurapenaren esperientzia eta hizkuntza gutxituen biziberritzea" .....	Iruñea, uztaillak 16-17	14 ordu
"Lazarragaren testuak DBIn erabiltzeko" .....	Eibar, uztaillak 11-12	12 ordu
"Literatura Unibertsala itzultzen" .....	Eibar, ekaiñak 26-27	14 ordu

### GIZARTE ZIENTZIAK

"Irakaskuntza kooperatiboa Natur Zientzietan, erreken kontserbazio-egoera aztergai" .....	Eibar, ekaiñak 26-28	22 ordu
"Iraultzaileak hezten: hezkuntza aldaketa sozialerako tresna gisa" .....	Iruñea, uztaillak 16-17	14 ordu
"ETBk 30 urte" .....	Eibar, ekaiñak 28-29	14 ordu
"Komunikazio-tailerra elkar-teentzat" .....	Eibar, ekaiñak 28-29	14 ordu
"Antzerkigintza hezkuntzan: sor dezagun elkarrekin komunikatzeko bide bat" .....	Baiona, uztaillak 4-6	22 ordu
"Kontu txikiak eta euskaraz mintza eta jolas tailerra" .....	Baiona, uztaillak 4-5	12 ordu
"Ebaluazioa Moodle-n: kalifikazio-liburua eta tailerra" .....	Eibar, ekaiñak 28-29	12 ordu
"Sexologia, gazteak eta sare sozialak" .....	Eibar, uztaillak 9-11	15 ordu
"Sexu-hezkuntza eta desgaitasuna" .....	Iruñea, uztaillak 16-17	10 ordu
"Soziolinguistika: kontzeptu nagusiak" (tailarra) .....	Baiona, uztaillak 4-5	10 ordu
"Parte-hartzea aztergai: hausnarketarako gunea" .....	Baiona, uztaillak 4-5	12 ordu



## Urteurrenerako ekintza berezixak

### - Oparitu UEU Bonua!

Astelehenaz geroztik UEU Bonuak erosteko aukeria eskintzen dihardue lehelengoz, komunikazioa@ueu.org helbidera idatzita edota 943821426 telefonora deittuta. Bonuak 30 euro kostatzen dabe, baiña benetan 33 euroko balixua eukiko dabe. Hau da, UEUk %10a oparitzen dau. Bonuak UEUren ikastaruak pagatzeko, liburuak erosteko edota bere aldizkarixetako harpidetzak egiteko erabilli leikez, 2012ko abenduaren 31ra arte.

### - Hitzaldi-ziklua

Ekaiñaren 4tik 7ra bittartian pili-pilian daguaz gaixen gaiñeko hitzaldi-ziklua eskinduko dabe. Hitzaldixak Bilboko La Bolsan egingo dira, 18.30xetatik aurrera eta, oindiok danak lotuta ez

badagoz be, bi aurreratzeko moduan dagoz: ekaiñaren 4an "Krisi ekonomikuari buruz" jardungo dabe Joseba Tobar-Arbuluk eta Xabier Renteriak eta ekaiñaren 6xan Iñaki Martínez de Lunak "Euskararen inguruko diskurtsoa aldatu beharra" izenburukua emongo dau.

### - Bizipozen bloga

UEUren 40 urtiak askorako emon dabe eta udako ikastaruaren inguruan bizi izandako gertakari eta kontuak [www.uni-bertsitatea.net/blogak/UEU40](http://www.uni-bertsitatea.net/blogak/UEU40) blogean batzen juateko asmua dake, bisita-liburuetan egitten dan moduan. Horregaitik ikastaruetan parte hartu dabeneri dei egitten detse, euren esperientzixa komunikazioa@ueu.org helbidera bidaltzeko.

## MATRIKULAZIÑUA ZABALIK ETA ERDI-PREZIUAN

Ikastaruetan izena emoteko epia zabalik dago eta ikastaro baxotxa hasi baiño astebete lehenagora arte egongo da horretarako aukeria [www.ueu.org](http://www.ueu.org) webgunian. Bestalde, matrikulia pagatzeko orduan diru-laguntza inportantiak daguazela gogora ekarri nahi dabe: Eibarko Udalak gure herrixan errolatutakueri matrikuliak kostatzen dabena erdixa bueltatzen detse eta, hortik aparte, UEUk ikasle, langabetu eta jubilaue matrikuletan beherapenak aplikauko dittu.



"Herri-mugimenduak eta militantzia-ereduak" .....	Eibar, uztailak 9-10	14 ordu
"Batzarra: jatorrizko antolakuntza-erakundea etorkizunerako bermea" .....	Iruñea, uztailak 16-17	14 ordu
"Identitate di-soluzioak: narrazio performatiboak generoa eta euskal identitatea uztartuz" .....	Eibar, uztailak 11-12	14 ordu
"Elkadura burujabetza eta Agroekologia" .....	Baiona, uztailak 4-6	22 ordu
"Jendearen aurrean euskara jasoan hitz egiteko teknikak" .....	Iruñea, uztailak 17-18	14 ordu

### INGENIARITZA ETA TEKNOLOGIA

"Bioeraikuntza eta geobiologia: bizitzeko eraiki" .....	Eibar, uztailak 11-12	14 ordu
"Scratch, teknologia berriak ikasgelan. Multimedia garapenak helburu pedagogikoeekin" .....	Eibar, uztailak 12-13	12 ordu
"Zientzia-hezkuntzarako tresna digitalak: Google Earth eta Maps" .....	On line, ekaiñak 29 - uztailak 18	40 ordu
"Smartphonetarako aplikazioen programazioa Titanium erabilita" .....	Eibar, ekaiñak 26-27	12 ordu
"Murgildu robotikari LEGO NXTekin" .....	Eibar, uztailak 9-11	18 ordu

### OSASUN ZIENTZIAK

"Kannabisa: eraginak osasunean eta erabilera terapeutikoak" .....	Eibar, ekaiñak 26-27	12 ordu
"Zentzumenen terapiak: psikoaromaterapia, musikoterapia, irudikapen sortzailea..." .....	Eibar, uztailak 11-13	18 ordu
"Gorputz sortzailea: gorputz eta mugimenduen inteligentzia" .....	Baiona, uztailak 4-6	22 ordu
"Haur-psikologia: gaurko haurrak etorkizuneko helduak" .....	Iruñea, uztailak 16-17	12 ordu
"Coaching-erako sarrera" .....	Eibar, ekaiñak 26-27	12 ordu
"Aldaketa-prozesuetarako gakoak: konfiantza eta autoestimua" .....	Iruñea, uztailak 16-17	14 ordu
"Egoera kritikoak gainditzeko teknikak" .....	Baiona, uztailak 4-5	10 ordu

### ZIENTZIAK

"Mendiko teknikak basabizitzaren ikerketan". Ikastaro praktikua, Pirinioetan .....	Iruñea, uztailak 16-21	80 ordu
"Hondakinen kudeaketa eta tratamenduak" .....	Eibar, uztailak 9-10	12 ordu
"Geogebra erabiltzen ikasi: hastapenak" .....	On line, ekaiñak 26 - uztailak 18	40 ordu

TEEN-  
AUEA



Uni Eibar-*Ermuak web diseinatzaile bikainak sortzen ditu. Kori erakutsi du EuskoSkills-ek, bertan Mikel García eta Jose Serodiok 1. eta 3. postuan amaitu zutelako. Korren ondorioz, Mikelek SpainSkills-en hartuko du parte 2013ko urtarrilean Madril-en.*

**MIKEL GARCÍA, EuskoSkills irabazlea: “SpainSkills irabaztea da nire helburua”**

**- Nolakoa izan zen Eusko-Skillsetako proba?**

Hiru egunetan banatzen zen proba. Lehenengoan ariketa bi egin behar genituen. Batetik, datu-base bat oinarri hartuta taula bat osatu. Espainiako herri guztiak genituen, eta herria, probintzia, eta 2010-11ko errolda erakutsi behar genuen. Herriaren gainean klik eginda, gizon eta emakumeen portzentaia eta herriak biztanle kopurua gora egin zuen edo ez azaldu behar zen. Beste ariketan, ikasleen datu batzuekin alta, baja eta aldaketak egin behar genituen. Bigarren eguneko goizean orrialdeari estiloa eman behar genion (koloreatu, irudiak ipini) eta, arratsaldean, gure herriaren orrialdea egin eta lehen eguneko ariketa biak txertatu. Azken egunean, gure orrialdearen aurkezpena egiteko ordubete izan genuen.

**- Zure burua irabazle ikusten zenuen?**

Inoiz ez. Ni baino esperientzia gehiago zuen maila handiko partaideak zeuden.

**- Proba prestatzerako orduan Jose Serodioren laguntza izan duzu. 1. eta 3. postuak**

**lortu dituzue. Ikasleak irakasle-  
lea gainditu du kasu honetan.**

Asko zor diot Jose Serodiori, asko irakatsi didalako; asko dut berarekin ikasteko oraindik. Elkarrekin oso ondo pasatu genuen proba egiten.

**- Lehen aldia da horrelako zerbaitetan parte hartzen duzuna?**

Bai. Asko gustatu zitzaidan nola zegoen antolatuta dena eta berriz hartuko nuke parte.

**- SpainSkills-en parte-hartze-  
ko txartela lortu zenuen. Nola prestatuko duzu?**

Jose Serodierekin ahalik eta gehien ikasiko eta azken urteotan ikasitakoarekin praktikatu beharko dut. Interneten hainbat webgune egiten dihardut eta erabiltzaileen exijentziarekin gauza asko ikasten duzu.

**- Zein helbururekin zoaz?**

Irabaztera noa, baina maila asko egongo dela badakit eta zaila izango da. Gauza berriak ikasten jarraitu behar dut garai-pena lortu ahal izateko.

**- Eta han irabazi gero, zer?**

Hurrengoa EuroSkills izango litzateke, Europa mailan. Horrelako mailako txapelketara joatea bakarrik izugarria da.

<p>MULTIABENTURA UDAL EKINAK UDA 2012 <b>Geopark</b> Eusko Konderia LABURKO ATERPETXEA (Deba) 6 eta 9 GAU OSTAILAN</p>	<p>ZIBAKO MULTIABENTURA UDAL EKINAK UDAL EKINAK POLIZIAN OSTAILAN 6 egun DEBA ETA ERREALDEKO 9-14 UNTE BITARTERAKO GASTUAK Tel. 945 19 11 95 / 901 100 000 deba@alar.com</p>	<p>MULTIABENTURA UDAL EKINAK UDA 2012 <b>Eusko</b> PRINTEK 12-16 UNTE ARNAIA ATERPETXEA (Iruiaiki, Nafarroa) 5 gau OSTAILAN-ANUNTUA</p>
--	--	---



# Lanbide Heziketari bultzada eman nahian

**E**ibarko udaleko Garapen Ekonomikoa, Enplegua eta Berrikuntza Sailak gure herriko Lanbide Heziketako ikastetxeen lana bultzatzeko ahaleginetan dihardu, "alde batetik, kalitate eta eskaintza zabala dutelako eta, bestetik, ikastetxeek Eibarren eta eskualde honen garapen sozioekonomikoarekin zeresan eta zerikusi handia dutelako". Hala adierazi zuten aurreko barixakuan, udaletxean eskaintako prentsaurrekoan.

Helburu horri jarraituta eta ikastetxeetan matrikulatzeko sasoiastear dagoela aprobetxatuta, hainbat ekimen abiarazi

dituzte lanbide heziketaren alorrean Eibarrek duen eskaintza zabala ezagutarazteko eta, besteak beste, informazio-jardunaldiak antolatu dituzte.

Lehenengoa atzo egin zen Portaleko areto nagusian eta han izan ziren José Carlos Crespo Velasco, Lanbide Prestakuntzarako eta Etengabeko Ikaskuntza Sailburuordea, M<sup>a</sup> José Telleria, Eibarko udaleko Garapen Ekonomikoa, Enplegua eta Berriztapen batzordeko zinegotzi arduraduna eta herriko ikastetxeetako ordezkariak. Sailburuordeak Lanbide Heziketaren gaur egungo egoerari buruz eta ikasketa horrek es-



Udaleko eta ikastetxeetako ordezkariak prentsaurrekoa eskaini zuten.

kaintzen dituen aukeren inguruan egin zuen berba eta ikastetxeetako ordezkariak, berriz, euren eskaintzaren berri eman zuten. Ekitaldian, bestalde, oroi-garri bana eman zieten Lanbide Heziketako ikasle onenei. Aldi

berean, Udalak gutun bana bidali die Lanbide Heziketako ikasketak egiteko moduan dauden gazte guztiei (1.000 inguru), Lanbide Heziketako ikastetxeek duten eskaintza zabala- ren inguruko informazioarekin.



## La Salle Astea ospatu zuten

Urteroko moduan, Isasiko eta Azitaineko ikastetxeetan La Salle Astea ospatu dute orain egun batzuk. Maiatzak 3an Azitainen play-back antolatu eta gela guztiek parte hartu zuten, goiza umore giroan pasatuta. Baina jairik haundiena hurrengo egunean ospatu zuten ikastetxe bietan. Eguna eukaristiarekin hasi eta, ogitartekoak banatuta, herri-kirol eta jokoei ekin zieten. Azitainen, gainera, bakailao txapelketa jokatu zuten eta, horren ostean, argazki rallyan egindako lanak ikusteko aukera izan zuten. Sari-banaketa amaituta, ikasleek jatetxe batean jarraitu zuten San Joan Bautistaren eguneko jaiarekin. Zapatuan, bestalde, 2. Batxilergoko en- agurra ospatu zuten Azitainen, ikasleei diplomak eta intsigniak banatuta.

**BARRIO** autobusak eta mikrobusak

www.autocaresbarrio.es  
info@autocaresbarrio.es

**MOBILA: 659 87 89 89**  
943 17 15 01 / Aldapa, 6 (ERMUA)

**San Andres Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

**Quetzal**  
[amopu, bitxiak, opanak]

**berria!**  
moda berria  
**Eibarren**

Zuloagatarren, 7 - 20600 EIBAR - Golekale, 9 - 48260 ERMUA, 9431 2006

# GREMIOEN GIDA

NEW 2008

## ANTENAK

**BALATZ** S.L.

Instalakuntzak eta konponketak  
antena - telebista

Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08  
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain z/g

Tfnoa. 943 12 73 50  
Faxa. 943 20 73 60  
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

## ARKITEKTOAK



## AROTZAK


**IÑAKI**

Egurrezko mota  
guztietako lanak

Ateak - Tarimak  
Altzariak

Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

**Iraner**  
ateak EDER aroztegia



Ateak, horma-armairuak, tarimak...  
Burdindegiko artikulua salgai  
Giltzen kopiak  
Ebanisteria

Bizkaia etorbidea, 10 (ERMUA)  
943-174925 iranercb@gmail.com



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA  
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ELEKTRIZITATEA



**GURIA**

ELEKTRIZITATEA

\* Muntaita eta  
proiektu elektrikoak



Matsaria 2 - 7. pabilioia  
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27  
www.electricidadguria.com

## GARBIKETAK


Limpieza  
Multiservicio  
Eibar

Superficie  
mota guztietako  
garbiketa eta  
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615  
Mobila 688 609 171



Barrena, 21 - 1. F



**TREJO**  
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557  
Faxa: 943-752556  
16 Postakutxatila - Soralue

Garbiketa eta  
mantenimendua

## HODI-LIBRATZEAK



- Hodi-libratzeak
- Saneamenduen garbitzea
- presio handiko makinariarekin
- Ur ateratzea ufaletan ondoren

LARRIALDIETARAKO (24 orduetan): 673 304 222  
www.desataxcos.com

# Informazio gehiagorako



943 20 67 76



## IGELTSEROAK

IGELTSERITZA



**CAMILO ALVAREZ** OROKORREAN

– Barne erreformak  
(sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)

– Gremioen koordinaketa

**Jardiñeta, 25** - behea  
Etxeko tfnoa. 943-207678  
Mobila. 620 060 104



**IRAZABAL**

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK  
IGELTSERITZA ETA  
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azitaín Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
[www.irazabal.net](http://www.irazabal.net)

## ITURGINTZA



**MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANSGRÖHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18  
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

## KRISTALAK



**ACHA Kristaldegia**

ERREKATXU, 3<sup>an</sup>  
**KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK**  
[c.acha@euskalnet.net](mailto:c.acha@euskalnet.net)  
eta faxa: 943 20 39 03

## PINTURAK



**AIXA**

Pintura orokorra  
Margotutako paperak  
Zoruen kolokazioa  
PVC zoruak  
Maketak  
Alfonbrak  
Kortinak  
Etxerakoak  
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.  
943 20 05 94  
T. Etxebarria, 8 - behea



**PINTURAS ARRATE, S.L.**

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A  
[parrate@terra.es](mailto:parrate@terra.es)  
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89



**Pinturas**  
**Elias e Hijo, S.L.**

**pintura eta estaldura  
mota guztiak**

BARAKALDO, 7  
Telefonoa: 943 12 05 02  
Mobilak: 618 27 28 91 / 639 76 27 97



**MALVAR**  
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea  
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900  
Mobila. 656 784 396

**Pintura**  
**Goi mailako dekorazioa**



Pago Kalea, 35 DURANGO  
Tel. / Faxa: 94 620 03 01  
Mobilak: 607 41 71 81  
666 74 30 98

**VICTOR GONZALEZ FRAIZ**  
PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOKO  
dekorazioa eta pintura,  
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,  
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-  
696-565394 / 943-030540  
[victor-fraiz@hotmail.com](mailto:victor-fraiz@hotmail.com)

## SARRAILAGINTZA



**GILTZAK**

Era guztiako sarrailen salmenta eta mantenua  
Segurtasun-instalakuntzak  
Sarrailen egokipenak  
Segurtasun kutxak  
Era guztiako giltzen kopiak  
Trabatutako atek eta segurtasun-kutxak  
askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391  
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 [www.giltzak.com](http://www.giltzak.com)  
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

## Hirutik hiru: Kalamuako judoken plenoa benjaminetan Hernanin

**HERNANIN JOKATUTAKO JUDOKO BENJAMIN MAILAKO GIPUZKOAKO FINALE-TAN**, probintziako hainbat klubetako 300 bat neska-mutilen artean, Kalamua klubak hiru ordezkari izan zituen (jaunartzeak eta beste zirela-eta, talde murrirtza aurkeztu zuten eibartarrek) eta hirurak igo ziren podiumaren gorenera, urrezko domina bereganatu baitzuten

Unai Soralezek, Asier Núñezek eta Asier Sebastainek.

Urtero jokutzen den Frantziako Tarnoseko torneoan, bestalde, Beñat Mardarasek urrezko domina irabazi zuen eta Iker Martínezek eta Roberto Riañok brontzezko bana. Berrehun bat judoka izan ziren torneoan eta Kalamuak alebin mailako judokak aurkeztu zituen nazioarteko horretan.



Hirukoitea eta Manu Agirre prestatzailea.

## Goiz jokatuko dira foball zaletuko Kopako finalerdiak

**BAI BIHARKOIA ETA BAITA ETZIKOIA ERE, BIAK GOIZEKO 09.00-ETAN JOKATUKO BAITIRA:** EzDok-ek (2-0 Tankemans-i) eta Azkena Kalton-ek (1-0 C. Dental Ekoden-i) bihar neurtuko dituzte indarrak; etzi, bestalde, Ligako eta Kiroljokoaren II. edizioako irabazleak, Koskor ahalguztidunak (4-0 C. Murillori), beste final batean sartzeko ahalegina egingo du, hori saihesten ahaleginduko den Txokoren (penaltietan sailkatuta Durangorekin hiruna berdindu ondoren) aurkako partiduan.




## Aitor Zubillaga nagusi Arrateko Armeria Eskolako sari nagusia

**ZAPATUAN ARRATEN JOKATUTAKO HELIZE TXAPELKE-TAN, 35 LEHIAKIDEEAN** artean Aitor Zubillaga nagusitu zen, Iñigo Barrenetxearekin berdinketa hautsi ondoren. Zubillagak Laurona Zabala eskopeta historikoa bereganatu zuen Armeria Eskolako Sari Nagusia irabaztearekin batera. Aspaldiko tradizioa berreskuratuz, helize txapelketa Armeria Eskolako

mendeurrenerako batzordeak eta Eibarko Tiro Elkartek antolatuta zuten eta lehenengo 10 postuetan sailkatutakoak hauek izan ziren, hurrenez hurren: Aitor Zubillaga, Iñigo Barrenetxea, Francisco Torres, Enrique Barrenetxea, Unai Oñaederra, Esteban Azkue, José Luis Beaskoetxea, David de la Rosa, Mauricio Vicuña, Luis Etxebarri eta Alejandro Laka.

## Gure herriko lau ordezkari Bilboko Iron Man erdian


**EIBAR TRIATLOI TALDEKO LAU TRIATLETA IZAN ZIREN ZAPATUAN BILBOKO TRIATLOIAN** eta laurak amaitu zuten proba. Eguraldi kaxkarrak gehiago gogortu zuen berezko zailtasuna duen proba (ia bi kilometro igerian Bilboko ibaian, 90 kilometro bizikleta gainean eta 21 antxitxiketan Bilboko kaleetatik). Moises Altuna izan zen eibartar onena, 296. postuan; bere atzetik sailkatu ziren Iñigo Villalba (421.a), Iñaki Lasa (438.a) eta Ibon Romero (474.a), azken hau bosgarrena 23 urtetik beherakoen artean eta bigarren euskalduna bere mailan.



## JOSE RAMON BECKMANN OROZCO II. URTEURRENA (2010-V-29)

**MAITE ZAITUGULAKO,  
gurekin zaude, gurekin betirako.**

**ZURE EMAZTE, SEME-ALABA ETA AMAK**







Jaurtialdia Soraluzeko San Andres bolatokian.

## Bolari Egunaren bezperan

**GIPUZKOAKO HIRU-TXIRLO TXA-PELKETAREN AZKEN JARDUNALDIAREKIN BATERA**, urtero moduan Bolari Eguna ospatuko dute kirol horretan dihardutenek. Aurten Asola Berrin izango da, elkartearen 50.a urteurrena aprobetxatuz, eta hurrengo zapatuan, ekainaren 2an egingo da. Tiraldia eguerdian jokatu da eta, behin parrekoak erabakita, bazkaria izango da 14.30etan Azitain jatetxean. Bazkal ostean sariak banatuko dira.

Bihar, baina, Elgoibarko San Ronen jokatu da azken-aurreko jaurtialdia, ohikoa denez 17.00etan hasita. Azken jardunaldi biren faltan, Sergio Rodríguez eibartarrak eusten dio 1. postuari eta atzetik du Bittor Ugarteburu taldekidea, hiru txirlora.

## Denboraldiko partidu garrantzitsuenaren aurrean

**TXANTXAK BAZTERTU ETA, NEURKETA ZAIL BEZAIN GARRANTZITSUARI EGIN BEHARKO DIO** aurre Eibar KE-k bihar Ipuruan, 20.15etatik aurrera, Lugoren aurka. Galizia aldean jokatuako partidua orekatua izan zen eta armaginen defentsan izandako txar-to-ultze batek erabaki zuen. Emaitza arris-kutsu hori iraultzen ahalginduko dira Javier Mandiolak zuzendutakoak, jakinda hori lortuta ere beste bi kanporaketei egin beharko dietela aurre. Quique Setienek entrenatzen duen Lugo ere talde sendoa da eta zailtasunak ipiniko dizkie eibartarren asmoei. Baikor izateko arrazoiei begira, Eibarko taldeak jokalaria guztiak ditu prest kanporaketa gainditzeko. Partidu horretarako, Eibar KEko zuzendaritzak aukera ematen die abonatu guztiei (sarrera doan izango dute) beste sarrera bat jasotzeko 10 eurotan. Abonatuak ez direnentsat honako prezioak izango dituzte

sarrerak: Tribuna Nagusia eta Iparra, 30 euro; Gol Ekialdekoa zein Mendebalekoa, 20 euro; eta umeen kasuan, 10.

### Zaletuak ere prest laguntzeko

Eskozia La Bravak, Emango Nukek eta Ibar Gain kuadrilak hainbat ekitaldi antolatuta nahi dute partidua girotzeko. Bestalde, gaur bertan "Bihotz Armaginen" kamisetak salgai izango dira Untzagako Jubilatuen Egoitzan.




## Eibartarrak-ek mailari eutsi zion Preferenten

**AZKEN JARDUNALDIRA ARTE BORROKATU BEHAR IZAN BADUTE ERE**, Gipuzkoako Preferente mailan diharduen Eibartarrak mailari eustea lortu du. Denboraldia gogorra egin zaie eibartarrei eta iaz eskuratutako mailari eustea are gogorragoa, jaitsiera pos-

tuetan egin baitute ia denboraldi guztia. Bestalde, 1. Erregional mailako taldeek ere amaitu dute denboraldia: Urki azkena izan da bere multzoan, baina igoera fasea jokatu du; eta Eibartarrak B laugarrena izan da Kopako multzoan; Gazteak, bestalde, erretiratu egin da.

**bilaldia 2012**  
**TRAPAGARAN**  
 ekainaren **3**an  
 autobusa  
**IRTEERA 10.00** **BUELTA 19.30**  
**8 euro**  
 J.A. Moge! Ikastolako Gurasoen Elkarte...eta kitto! Cuskara Elkarte

**EGOITZA NAGUSIA**  
 Babarrizte 20 - beheko eskua  
**M FUNERARIA MUGICA**  
**Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Daba**  
 Tanatorio eta Errebozeta labar  
 Egoitza (ligna poligonoz)  
 Partikular, eskua eta ogera erretze zerbitzuak  
 Koroak - Eskala - Urteurrenako ekitaldiak  
 Eskal Hant eskua ospitaleen hartzaileak  
 Nafar eta Nazioarteko italdienak  
**Mugica Ehorzketak**  
 TELEFONOA (34 GRU) **943 201 951**



Pilota Eskolako taldeak buru-belarri dihardu Udaberri Torneoko lehiaketan.

## Unamunzaga Udaberri Torneoan bihar 12.00etan Kiroldegan

**LAU ETA ERDIAREN BARRUKO NORGEHIAGOKA IZANGO DA BIHAR** Ipurua kiroldegiko frontoian. Han izango da Gaizka Unamunzaga Eskoriatzako Zubizarreta gaintzeko asmoz, aurreko asteburuan Etxeberria aretxabaletarrarekin egin zuen moduan (22-5 nagusitu zen eibartarra). Udaberri Torneoko hiru partiduetan nagusitu ziren eibartarrak Astelenan

jokatutako aurreko jardunaldian: Unamunzagak seniorretan eskuratutakoari gehitu behar zaizkio gazteetan Lantz-ek Zumaiako Eizmendiri irabazitakoa (22-13) eta kadeteetan Narbaizak Donostiako Plazaolaren aurrean lortutako garaipena (22-11). Ipuruan jokatutako jubenetakoetan, Ruizek 22-6 irabazi zuen eta Larraurik emaitza berarekin galdu.


## Eibar Eskubaloiko talde bi Gipuzkoako Kopako fase finalean



**TEKNIKER EIBAR ESKUBALOIAK 50-8 EGURTU** zuen Bergara eta, gol zaparrada horrekin, sailkapeneko lehenengo postuan amaitu du, asteburu honetatik aurrera Gipuzkoako Kopako txapelaren bila jarduteko borrokan. Kadete mailako nesken taldeak ere Gipuzkoako Kopako finalerdietarako txartela eskuratu du, asteburuan Elgoibarren Casa Astigarraga taldearen aurka galdu arren.

## Eibartar biek amaitu zuten bereziki gogorra izan zen Zegama-Aizkorri

**DOMEKA GOIZEAN JOKATUTAKO IZEN HANDIKO MENDI-MARATOIAN**, gure herriko ordezkari biek aurre egin zioten eguraldiaren gogortasunari eta, elur, euri, hotz eta lokatzezko "laguntasuna" izan arren, helmugara iristea lortu zuten. Ander Barrenetxeak 57. postuan amaitu zuen, 4h51'53"ko denborarekin; zeozer gehiago kostatu zitzaion helmugaratzea Jose Ramon Sousari (290. postuan amaitu zuen, 6h22'51" eginez). Gironako Kilian Jornet nagusitu zen beste behin proban (3h56'04") eta Oihana Kortazar elgetarra izan zen onena emakumezkoetan (4h52'30").



Ander Barrenetxeak 57. postuan amaitu zuen, proba amaitzeko bost orduetik behera eginez.

## Jose Luis Fernández Euskadiko txapeldun basoko txorietan

**LEIOAN ASTEBURUAN JOKATUTAKO EUSKADIKO 'SILVETRISMO' EDO BASOKO TXORIEN TXAPELKETAN**, Eibarko Txori Lagunak-eko Jose Luis Fernández Goikoetxeak lehen postua eskuratu zuen kardantxiloetan eta, txapel horrekin batera, Méridan



ekainaren 2an eta 3an jokatuko den Espainiako txapelketarako txartela bereganatu. Aurreko asteburuan Arraten jokatutako kanporaketan larri ibili zen Jose Luis Fernándezen txoria finalerako txartela lortzeko, 9. postuan sailkatu baitzen; baina, Leioako Ondiz probaderoan, estalian jokatutako lehiaketan, "beste kuku batek abestu omen zion" eta irabazi.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

**NTRA. SRA. DE BEGOÑA**

**EHORZKETA-BEILATOKIA**

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:  
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:  
☎ 943 201095 FAX: 943 202564

**EMAKUME ETA GIZON  
MODA**

**Valenciaga**

**KONFEKZIOAK**

☎ 943 20 22 33

ZULOAGATARREN, 7



*'Ingenios hidráulicos en Eibar' izeneko liburua idatzi du Koldo Lizarralde. Errotak, burdinolak eta barrena-zuloak dira, besteak beste, protagonista Lizarralderen lanean. Autorea pozik dago bere idatziak izan duen harrera onarekin, baina gaur egun horietariko asmakizun bat ere ez egoteak pena ematen dio.*

**- Zer dela-eta idatzi duzu Eibarko asmakizun hidraulikoen gainean?**

20 urte daramat asmakizun hidraulikoak aztertzen (errotak, burdinolak, barrena-zuloak...) Gipuzkoa mailan. Erroten gaineko Ituna egin genuen Antxon Agirre Sorondok eta biok 1988an, eta erroten ikerketa eta konterbaziorako nazio mailako elkartean nabil. Zuzendaritza batzordeko kidea naiz eta aurtun 8. kongresua egin dugu. Hortik dator guztia. Ikertzen hasten zara eta datu berriak agertzen zaizkizu. Orduan, nola utziko dituzu horiek aztertu gabe? Ba, ezin dut, jarraitu egin behar dut.

**- Nolako izan da liburuaren gauzatzea? Zenbat denboratan sortu duzu?**

Hamar bat urtetan idatzi dut. 438 oin-ohar ditu liburuak; beraz, pentsa! Asko laburtu beharra dago, zentzua eman behar zaio.

**- Eibarko asmakizun hidraulikoen gainean dokumentazio asko aurkitu duzu?**

Bai, dokumentazioa oinarri hartuta idatzi dut liburu guztia. Eibarko Udaleko eta Oñatiko Protokolo artxiboak, eta Valladolideko eta Madrilgoak ere erabili ditut.

**- Orain dela hainbat urte Elgoibarko asmakizun hidraulikoen gainean liburua idatzi zenuen. Ezberdintasunak daude Elgoibar eta Eibarko asmakizunen artean?**

Gipuzkoa osoan oso antzekoak dira. Detalleak egon daitezke. Adibidez, Eibarko Galtza errota oso berezia da Gipuzkoa osoan, ezaugarri berezi batzuk dituen bakarra. Besteak antzekoak dira eta modu paretsuan egin dute eboluzioa. Elgoibarko hainbat lagun Eibarko hainbat burdinolen jabeak ziren, eta alderantziz. Gainera, Soraluze, Elgoibar



**KOLDO LIZARRALDE, etnografoa:**

**“Eibarko jendeak demaseko industria zuela jakin behar du”**

eta Eibar oso batuta zeuden armagintza kontuetan.

**- Zertarako erabiltzen ziren errotak?**

Alea ehotzeko. Hasieran artatxikia, eta gero garia eta artoa. Eibarko hainbat errota ohialak zapaltzeko mailuak aurkitu ditut, batanak zituiztenak.

**- Zer da batana?**

Trapuak eta bestelako ohialak birrintzen dituen aparatua da, papera eta horrelakoak egiteko.

**- Asmakizun hidraulikoek, orduan, hasieran funtzio bat izan zezaketen eta gero beste bat?**

Bai, edo biak denbora berean. Errotetan, adibidez, barrenatzeko asmakizunak eta errota bera zeuden bat eginda. Harri bat kainoiak barrenatzeko erabiltzen zuten eta beste garia ehotzeko.

**- Zerbaitek harritu zaitu ikerketa egiterako orduan?**

Burdinolek. Eibari buruz idatzi izan dutenek beti egin dute berba burdinolen gainean,

baina inork ez du gain sakondu. Orduan, hainbeste datu izanda, ezin nintzen ezer egin gabe geratu. Eibarko jendeak demaseko industria zuela jakin behar du.

**- Zein sasoitan egon izan dira asmakizun hidrauliko horiek Eibarren?**

XVI. mendetik XIX-XX.era arte.

**- Nolako garrantzia izan zuten asmakizun hidrauliko horiek Eibarren garapen industrialean?**

Garrantzi guztia. Hortik garatu zen Eibarko industria. Errotak norberaren hornikuntzarako erabiltzen ziren, euren iraupenerako aparatua ziren. Gero, berrikuntzekin asmakizun berriak garatu zituzten. Adibidez, Isasiko burdinola zegoen tokian Alfa Microfusión dago gaur egun, bata bestearen eboluzioa delarik.

**- Zer gertatu zen asmakizunak erabilgaitz geratzeko?**

Gauza horiek traba egiten zutela pentsatu zuten, beste industria baterantz jo zelako. Eboluzioa delako hori.

**Isasiko burdinola zegoen tokian Alfa Microfusión dago gaur: bata bestearen eboluzioa da**

30 urtetan zehar Espainiako musika munduaren goi-mailan egon ostean, Los Secretos taldeak ez du sekreturik publiko nagusiarentzat. 'En un mundo raro' diskoa aurkeztera etorriko dira ekainaren 2an Coliseora (21.00etan) eta Jesus Redondo taldeko teklistarekin egon gara berriketan.



## JESUS REDONDO (Los Secretos): "Publikoa da gailurrean jarraitzeko sekretua"

- 30 urtetik gora Espainiako musika munduaren goi-mailan. Zein da Los Secretosen sekretua hor jarraitzeko?

Ez dago; publikoak egiten du posible. Gure lana ahalik eta ondoen egiten saiatzen gara, baina publikoaren aldetik erantzunik ez balego, ez genuke gailur horretan jarraituko.

- En este mundo raro' izena du zuen azken lanak. Hasi zinetenetik hona asko aldatu da mundua? Arraroagoa da?

Ez dakit arraroa den edo arrarogotu den. Diskoaren tituluak neskatila bat telebistan berriak ikusten dituen bitartean igorritako galderari erantzuten dio. Munduan gertatzen diren gauzak seme-alaba txikiei kontatzea oso zaila da, ia ezinezkoa. Beste esanahi bat hartuz, gauza arraro bat zerbait eder eta bakarra bezala hartzen dugu. Mundu arraro hau ederra eta bakarra ere da, eta gehiago zaindu beharko genuke.

- Estudioko 13 disko kalera-tu dituzue, baita zuzeneko beste hiru ere. Estudioko edo zuzeneko taldea, zer zaretze gehiago?

Gauza batek bestera eramaten zaitu. Beti saiatu gara zuzenean entzuten dena estudioan eginda egongo balitz moduan entzutera (musikari

osagarri gabe, adibidez). Alde handia dago grabaketa estudioan ariztetik zuzenean jotzera, baina gauza biak gustatzen zaizkigu. Zuzenekoetan poztasun puntu handiagoa duzu, publikoaren aurrean zaudelako eta erantzuna berehalakoa delako. Estudioan, berriz, ez dakizu egiten duzuna ondo dagoen edo beste modu batean egin dezakezun. Kontzeptu ezberdinak eta helburua bakarra: publikoarengana heltzea.

- Nola doa bira?

Ondo, nota ipintzen hasita. Azken diskoko zazpi abesti jotzen ditugu eta hainbeste erreperitorio duen talde batentzat hori zaila da; abesti berri horiei tokia egiteko, gure publikoarentzat oso ezagunak diren beste batzuk kendu behar ditugu. Azken lanak harrera ona izan du eta publikoak ez digu ezer aurpegiratzen.

- Nolako izango da Eibarko kontzertua?

Oso ona, inguruan egiten ditugunak bezalakoa. Eibarren publikoaren hurbiltasuna jasoko dugu, inguruko jendea bilduko da-eta. Publikoarekin familiarizatzen zara urteak aurrera joan ahala: berriz batuko gara familiarekin. Hemen inguruan askotan jo dugu eta gozagarria izan da beti.

## Sanjuanetarako kartela eta pegatina aukeratuta

Aurtengo San Juan jaiak iragartzeko kartela Ermuko Maria Hurtado Vesgaren 'Musikan blai!' izango da, aurreko barixakuan lehiaketako epaimahaikideek hala erabakita. Umeen artean, berriz,




"Musikan blai!" da aurtengo San Juan jaiak iragarriko dituen kartelaren izenburua.

11 eta 14 urte bitarteko- en atalean Ainhitze Lasa Arrizabalagak eraman du saria, "Suzko danborrak" kartelarekin, eta 10 urtera artekoen artean Maialen Casañak, "Zezen korroa"-rekin. Bestalde, jaietan alkohol larregi ez edateko umore kutsua duen pegatina irabazlea Mikel Treviño, Joseba Aranzabal eta Amaia Ajuriagerraren "Ez izan tronparen errege" izan da.




Jaietan alkohol larregi ez edateko umore kutsua izango duen pegatinak "Ez izan tronparen errege" leloa izango du.

Riaño Langreoko I. Saria.



Vasco de Camping lehiaketako akzesita.



## Juan Antonio Palacios-ek lau sari eskuratu ditu maiatzean

Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeko Juan Antonio Palacios-ek lau sari eskuratu ditu maiatzean, beste horrenbeste lehiaketatan: Riaño-Langrean eta Lenbur-Legazpian lehenengo saria eman diote eta Argizaiola eta Euskadiko Kanping lehiaketetan, berriz, akzesit bana eskuratu du.



## Argazki rallyak agurtuko du maiatza

**DOMEKAN JOKATUKO DEN ARGAZKI-RALLYAK AGURTUKO DU ARGAZKILARITZA MAIATZEAN**, Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeak antolatutako programazioa. Proba Klub Deportibo parean hasiko da, 09.30etan eta amaitu ere bertan amaituko da, 14.30etan. Parte-hartzaileek rallya hasi baino ordubete lehenago izango dute izena emateko aukera eta kategoria bi egongo dira: zuri eta beltzez papelean (filmetik edo artxibo digitaletik) edo kolorezko artxibo digitaletik. Parte-hartze-ko kuota 10 eurokoa da (gazte-




Jose Benito Ruiz argazkilaria ikastaroak arrakasta handia izan du.

ak doan) eta hainbat sari bantzean, tartean gazte-saria (14 urtetik beherakoentzat).

## Mintza Eguna Santurtzin ospatuko da ekainaren 2an

**TOPAGUNEAK, BAI ESAN SANTURTZIN EUSKARAZ ELKARTEAK ETA AEK-K**, urteroko moduan, Mintza Eguna herri guztietako berbalagunak bazteko ikasturte amaierako jaia antolatu dute. Aurten zazpigarrenez ospatuko den festa Santurtzin izango da, ekainaren 2an eta egun osorako egitaraua prestatu dute, Santurtziko Udalararen eta Udal Euskaltegiaren laguntzarekin. Antolatzaileen berbetan,



"mintzapraktika egitasmoetan parte hartzen duten berbalagun, mintzakide, mintzalagun eta solaskide guztiek elkar ezagutu eta egun pasa ederra egiteko aukera da Mintza Eguna". Aurreko urteetako esperientzian oinarrituta, 400 bat lagun batuko direla aurreikusten dute eta tartean ...eta kitto! Euskara Elkartearekin Berbetan programan dihardute-netako asko izango dira.



## Umorezko antezzlana gaztetxean

**GAUR 21.30.ETATIK AURRERA "UN PAR DE 2" KONPAINIAK T.S.N.A. ANTEZLANA** eskainiko du gaztetxean (Iparragirre kalean). Antolatzaileek diotenez, "zientifiklown bikote berezi honek tentsio sexuala askatzeko teknikak eta baliabideak eskainiko dizkie ikusleei, umore eta giro onean".

## Olinpiada Txikia bihar Iturburun

**URTEROKO MODUAN, MAIATZEKO AZKEN ZAPATUAN OSPATUKO DUTE EUSKARAZ BIZI OLINPIADA TXIKIA** ikastolako txikiek. Iturburura igotzeko garraio zerbitzua 10.00etan hasiko da eskaintzen, Egogainetik. Probak hasi aurretik, hurrengo ikasturtean Iturburura joango diren ume eta gurasoek ikastetxea ezagutzeko aukera izango dute, 10.45etara bitartean. Ordu horretan haurrak kantxan egongo dira, bakoitza bere tutorea-ekin eta 11.00etan denek elkarrekin "Niri

euskaraz mesedez" abestu ostean kirol ekitaldia hasiko da: 4 urtekoentzat zirkuitua edo txinga-probak antolatu dituzte, 3 urtekoentzat kaskara-bilketa edo motor-zirkuitua, 5 urtekoentzat erreleboak eta pelota-pasa eta 2 urtekoentzat motor lasterketa. Atsedernaldia amaituta, nagusien sokatira saioak eta domina banaketa egingo dira eta Eibarrera itzultzeko autobusak 13.30etan hasiko dira jais-ten. Nagusien olinpiadak hurrengo asteburuan, ekainaren 2an jokatuko dira.



## laburrak

### MUSIKA ESKOLARAKO MATRIKULAK

Astelehenaz geroztik Juan Bautista Gisasola Musika Eskolarako matrikulazio-epaia zabalik dago 2011-2012 ikasturtean matrikulatuta egon direnentzat eta ekainaren 11n, berriz, aurretik eskolan ibili ez diren beste guztientzat zabalduko dute. Informazioa eskatzeko eta matrikula betetzeko Pegorara jo behar da.

### PELIKULA EMANALDIA

Zapatuan, 18.00etatik aurrera El Corte Inglés-ak zinea eskainiko du bere aretoan. Biharko pelikula "Descubriendo a los Robinsons" izango da.


### TXANGOIA

Untzagako jubilatuen etxeak Deba eta Zumaia bitarteko kostaldea eta flysch-a ezagutzera joateko irteera egingo du ekainaren 13an, 09.30etan autobus geltokitik irtenda. Goizean bisita egin eta 14.30ak aldera Zumaiako Marina Berri jatetxean bazkalduko dute. Bazkalostean dantzaldia egingo da. Prezioa 25 eurokoa da bazkideentzat (35 euro bazkide ez direnentzat).



## Kalian jolasian gaur arratsaldean

**EUSKAL JAIKO EGITASMOAREN BARRUAN DAGO IKASTURTEAN ZEHAR** ikastetxeetan landutako jolasak kalera atera eta, gurasoak nahiz umeak, guztiak elkarrekin, jolasean aritu daitezten. Ekitaldia 17.00etan hasi eta 19.00etan amaituko da; bitarte horretan Astixako begiraleak Untzagako plazan egongo dira umeekin jolasteko prest eta, jolasekin amaitzeko, kalejira ederra egingo dute. Egitasmoa garatzeko, Udalak, J.B. Gisasola Musika Eskolak, Klub deportiboak eta Eibarko ikastetxe guztiek hartuko dute parte.



## Musika karpan

**PATXI SAIZEK HAMAIIKA KANTUZ OSATUTAKO 'ITXA-ROPEÑA'** izeneko disko berria ekarriko du gaur gure herrira. Kantuen hitz gehienak berarekin badira ere, besteak beste Ernest Arranbide, Luis M. Lauzirika "Txili", Inazio Eizmendi "Basarri" eta Telesforo Monzónenak ere erabili ditu. Kontzertua gaueko 23.00etan hasiko da, Untzagako karpan.

**EGITARAU OSOA**  
24. orrialdean



## Zinta dantzen nazioarteko jaialdia

**ZINTA-DANTZAK MUNDU OSOA ZABALDUTAKO DANTZA MOTA BAT DIRA.** Bizitzaren arbola sinbolizatzen duela esaten dute zenbaitek, eta arbola horretara lotzen gaituztela zintek. Herrialde eta eskualde bakoitzean testuinguru desberdinetan dantzaten dira zinta-dantzak, baina denetan oso ezaugarri antzekoak dituzte: makil luze bat, eta haren muturretik datozen zintak helduz eta elkar gurutzatuz dantzaten duten dantzariak. **Kanariar uharteetako** barnealdeko herriek kultura aberats eta ederrak dituzte, horien artean hainbat dantza tradizional interesgarri gordez; ikusiko dugun zinta-dantza da horietako bat. **Katalunian Ball de Gitanes** edo ijitoen dantza izenarekin ezagutzen den dantza generoa ere izango da Eibarren. L'Arboç Tarragonako herri txikian dantza eta musika emanaldi ederrak egiten dira abuztuko festetan eta makila-dantza, casteller eta diables artean parte hartzen du Ball de gitanes-ek. **Nafarroako Cortes-en** palotea-doa izeneko emanaldia egiten da, antzerkia, kritika soziala, musika eta dantza uztartzen dituena; bertan egiten diren dantzetako bat "El trenzado" izenekoa da eta horixe dantzatuko dute Untzagan. Irailaren 8an ospatzen da **Arabako Eltziegion** bertako jai nagusia, eta herriko dantzariak eskaintzen duten dantzetako bat, El Arbol izenekoa, zinta-dantzaren aldaera bat da, makil txikitxo eta zinta motzekin egiten dena, hau da, zintak gurutzatu gabe. **Eibarko Kezka** dantza taldeak Gipuzkoako eta Bizkaiko zinta-dantza bana egingo ditu; eta, amaitzeko, zinta-dantza handi xamar bat egiten saiatuko da, dantza eskolako ikasle guztien laguntzarekin.




## Azokan gatzatua egiteko tailerra


**HORI IZANGO DA BIHAR GOIZETIK 14.00-AK ARTE IRAUNGO DUEN ARTISAU ETA BASERRITARREN** azokan izango den beritasunetako bat. Tailer hori goizeko 11.00etan hasiko da, beste gutzia moduan Toribio Etxebarria kalean. Ia 40 postu inguru izango dira goiz osoan eta, herriko baserritar eta artisauekin batera, izango dira ere kanpotik etorritakoak. Talo postuak ere eutsiko dio ohiturari eta, zer esanik ez, herri-kirol gazteenen jardunak.

# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, HAIZEA Gracia Lekunberri, ekañaren 1ian bi urte egingo dozuzelako. Etxekuen partez.




Zorionak, MAIALEN, haraiñegun sei urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.




Zorionak, ALEX Espiga Gómez, hillaren 21ian zortzi urte bete zenduaz-en-eta. Etxekuen partez.




Zorionak, AMAIA, printzesa, astelehenian lau urte beteko dozuzelako. Familixaren partez.




Zorionak, JONE, atzo urtia bete zenduaz-en-eta. Etxekuen eta, batez be, Markelen partez.




Zorionak, JOSU, mutil haundi, bixar bost urte beteko dozuzelako. Etxekuen partez.




Zorionak, GARAZI, hillaren 21ian bederlatzi urte bete zenduazelako. Etxekuen eta, batez be, Gaizkaren partez.




Zorionak, JOEL, hillaren 21ian bi urte egin zenduaz-en-eta. Familixa guztien eta, batez be, Jurgun lehengusuaren partez.




Zorionak, KEPAl, martitzenian lau urte beteko dittu-eta etxeko txikixak. Familixaren partez.




Zorionak, XABATl, domekan hiru urte beteko dittuelako etxeko mutil haundixak. Etxekuen partez.




Zorionak, ANE, neska haundi, hillaren 19xan bederlatzi urte egin zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, PABLO, haraiñegun lau urte egin zenduaz-en-eta. Muxu bat familixaren eta, batez be, Aitorren partez.




Zorionak, EKHI, gaur bost urte egiten dozuz-eta. Danok batera goiaz zurekin. Pa!




Zorionak, ALEX, gaur hiru urte betetzen dozuz-eta. Ondo pasa, aitta, ama eta etxekuen partez.



Zorionak, JUNE, atzo gure printzesak bederlatzi urte egin zittuan-eta. Familixa guztien partez.




Zorionak, ASIER (urte bi) eta JONE (10 urte), atzo zuen urtebetetze eguna izan zan-eta. Etxekuen eta, batez be, Iker anaixaren partez.



Zorionak, AIMAR (hillaren 31n hiru urte egingo dozuz) eta ENDIKA (atzo egin zenuan urtebete). Muxu haundi bat aitaxo, amatxo eta familixaren partez.



Zorionak, XABI!! Martitzenian zortzi urte bete zenduaz-en-eta, txapeldun!! Patxo haundi bat familixa guztien partez.




Zorionak, DANEL eta EKAIN, domekan urtiak egingo dozuez-eta. Familixa guztien partez.



Zorionak, EIDER, hillaren 22xan 11 urte bete zenduaz-en-eta. Gurasuen eta, batez be, Ametsen partez.



Zorionak, IKER Martínez Ruiz, gaur zortzi urte egiten dozuz-eta. Eukene, Karlos eta familixa guztien partez.



Zorionak, JULIA eta TOMAS, bixar urrezko ezteiak egingo dozuez-eta. Familixaren partez.

## HILDAKOAK

- Pilar Justel Prieto. 69 urte. 2012-V-16.
- Jose M<sup>o</sup> Atxa Olalde. 67 urte. 2012-V-16.
- Mertxe Arenaza Lazkano. 80 urte. 2012-V-19.
- Petra Prieto Ramos. 79 urte. 2012-V-19.
- Conchi Díaz Mateos. 61 urte. 2012-V-21.
- Felisa Urkiola Malaxetxeberria. 75 urte. 2012-V-22.
- Agueda Gisasola Agirre. 91 urte. 2012-V-22.

## JAIOTAKOAK

- Nora Moro Ibarzabal. 2012-V-11.
- Amane Urija Alonso. 2012-V-12.
- Shannon Ndosimau García. 2012-V-13.
- Martin Askasibar Hernández. 2012-V-13.
- Elene Muniozguren Zangitu. 2012-V-16.

## horoskopoa

### ARIES

Konfidantza kontua da. Zuk benetan sinesten baduzu, aukera handiak izango ditugu nahi duzun hori lortzeko. Bestela, esaiozu agur.

### TAURUS

Lan handia duzu aurretik, baina horren ostean sari bikaina jasoko duzu. Botatako izerdiak zerbaiteko balio izan duela ikusiko duzu.

### GEMINI

Galdera asko egingo dizkiozu zure buruari, baina erantzun gutxi jasoko dituzu. Ondo jakin behar duzu non aurkitu ditzakezun erantzun horiek.

### CANCER

Aste ederra daukazu aurretik. Gozoa eta beroa. Gogo handiz hasiko dituzu egunak, eta baita zure alboan egongo den lagunak ere. Eta amaitu? Berdin.

### LEO

Dia das Letras Galegas, Abontzako jaiak, Euskal Jaiak... eta hurrengo hilabeteetan datozenak! Erritmo honi jarraituz, nola amaituko duzu uda?

### VIRGO

Eztabaidak ia inoiz ez dira gozoak izaten eta zure lagunarekin izango duzuna benetan latza izango da. Hala ere, elkarki barkatzen jakingo duzue.

### LIBRA

Sasoi bateko ezina atzean laga eta zure helburuak betetzeari ekingo diozu bihurtik aurrera. Ez dago geldituko dizun lagun kristaurik.

### SCORPIUS

Burukomina sortuko dizun arazo bat izango duzu eskuartearen, konpontzen zaila izango dena. Bide berriak aurkituko dituzu aurrera jotzeko.

### SAGITTARIUS

Udaberria eta alergiak eskua emanda datozela badakizu. Beraz, pazientzia izan behar duzu, eta doministikuak ahalik eta ondoen pasatu.

### CAPRICORNIUS

Dantzarako gogoarekin egongo zara bihar eta Euskal Jaia eospatzeko aitzakiarik ez zaizu faltako. Beste kontu bat izango da biharamona.

### AQUARIUS

Arauk buru-belarri jarraitzen badituzu, ez zara konturatuko horiek justuak diren ala ez. Hausnarketa egin beharko zenuke kontu horietaz.

### PISCIS

Toki batetik bestera korrika ibiltzen zara. Joko Olinpikoetan parte hartzeko asmoa duzu ala? Seguru probaren bat irabaziko zenukeela.

## Barixakua 25

### EUSKAL JAIA

**17.00.-** Kalian Jolasian, ume eta gurasoentzako jolasak. Untzagan.

**23.00.-** Patxi Saizen kontzertua, "Itxaropena" disko berria aurkezten. Untzagan.

### INDIANOKUA GAZTELEKUA

**16.30.-** Bola-txapelketa. Indianokua Gaztelekuan.

### SANJUANETARAKO BATZARRA

**18.00.-** Sanjuanak prestatzeko batzar irekia, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Montekasino parean.

### AZKEN OSTIRALA

**19.30.-** Presoen eskubideen aldeko giza-katea, Eibarko Herrirak deituta. Untzagan.

### ANTZERKIA

**21.30.-** "T.S.N.A." antzezlan, Cía. Un par de 2 konpainiaren eskutik. Eibarko Gaztetxean.

## Zapatua 26

### OLINPIADA TXIKIAK

**10.00.-** Juan Antonio Mogel ikastolako Olinpiada Txikiak. Iturburur.

### EUSKAL JAIA

**10.00/14.00.-** Artisau eta baserritarren azoka.

**12.00.-** Herri kirolak eta bertsolariak.

**13.00.-** Eskolen arteko V. Herri Kirol Lehiaketa. AEKren talopostua.

**18.30.-** Kale-animazioa. Torbio Etxebarria kalean.

**22.00.-** Kantu-afaria.

**23.00.-** Erromeria Jainaga eta Narbaizarekin. Untzagako karpan.

## Domeka 27

### ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

**09.30.-** Argazki rallya (zuri-beltzean eta digitalean). Izen.ematea 08.30etatik aurrera. Klub Deportiboaren paretik abiatuta. Untzagan.

### EUSKAL JAIA

**12.00.-** Euskal Jaiko Kalejira. Ezpalak jaialdiko talde guztiak, gaiteroak, joaldunak eta Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako Eta Jainagaren eskolako trikitilariak. Urkizutik Untzagara.

**13.00.-** Ezpalak, Zinta-dantzak Nazioarteko Jaialdia. Euskal Herriko eta atzerriko dantza erakustaldia. Untzagan.

**14.30.-** Herri-bazkaria. Untzagako karpan.

**17.00.-** Erromeria, Patxi eta konpainiarekin. Untzagan.

**19.00.-** Larrain-dantza. Untzagan.

**20.00.-** Larrain-dantza. Deportibo parean.

## Martitzena 29

### IKASTEN

**10.00.-** "Ciudadanos jurados", Xabier Gurrutxagaren eskutik. Armeria Eskolan.

### ESKOLARTEKO ANTZERKIA

**15.00.-** "Non biziko gara?", "Denboraren makina" (Eskolabarri, Ermua). Hezkuntza Esparruan.

### GURASOAK MARTXAN

**18.30.-** "Aspectos del desarrollo y estrategias para educar", La Salle Azitainen.

## Eguaztena 30

### GIPUZKOA KE BARIK

**10.30.-** Gipuzkoa Ke Barik. Erretzeari laga nahi diotenei osasun arloko profesionalen arreta. Untzagan.

### EKINTZAILEEN EGUNA

**18.00.-** Debabarrena Ekinean! Enpresen Azoka.

**18.30.-** Ongi-etorria.

**18.40.-** Hitzaldia: "Nuevo Pensamiento, Nueva realidad, Nuevas acciones", Isabel Santiagoren eskutik. "Ekingune" ekimenaren aurkezpena.

**19.10.-** Debabarrena Ekinean 2012 errekonozimenduak.

**19.30.-** Ardo-dastaketa (Heras Cordon) eta hestebete dastatzea. Debegegan.

### DANBORRADA

**19.00.-** Umeendako entsegua.

**20.00.-** Helduendako entsegua. Beistegi eraikinean (B. Sarasketa kalean).

### DANTZA

**20.00.-** Dantzatu Gurekin Tour 2012, Biraka dantza taldekoen ikasturte amaierako ikuskizuna. Coliseoan.

### ESKOLARTEKO ANTZERKIA

**20.30.-** "Escenas", (Banarte Antzerki Taldea). Hezkuntza Esparruan.

## Eguena 31

### ELKARRETRATZEA

**12.30.-** Sektore publikoko murrizketen kontra (LAB). Untzagan.

### HITZALDIA

**18.00.-** "Maternidad, paternidad y conciliación en la CAE. ¿Es el trabajo familiar un trabajo de mujeres?", Raquel Royo Prietoren eskutik. Portalean.

### AMAÑAKO DANBORRADA


**19.00.-** Umeendako entsegua.

**20.00.-** Helduendako entsegua. Amañako herri ikastetxean.

### DANTZA

**20.00.-** Dantzatu Gurekin Tour 2012, Biraka dantza taldekoen ikasturte amaierako ikuskizuna. Coliseoan.


## SUDOKUA



AURREKOAREN EMAITZA

	8		3		5		1	
			7		2			
	3	4					5	7
		7		5			8	
	4			9				3
		8		3			1	
	5	2					7	6
			6		1			
	9		5		3			8





**erakusketak**

- Maiatzaren 27ra arte  
**JOSE BENITO RUIZ**en "Diálogos sobre composición" argazki erakusketa. Portalean.
- XAVIER FERRER CHUST**en "Grabarka" argazki erakusketa. Portalean.
- SANTOS MORENO VILLAR**en "Alma de Cuba" argazki erakusketa. Portalean.
- Maiatzaren 31ra arte  
**31. ARGIZAIOLA LEHIAKETA**ko lanen erakusketa. *Klub Deportiboan.*
- DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEA.**  
*El Ambigú, Portalea taberna eta Untzagako jubilatuenan.*
- Ekainaren 3ra arte  
**JULIAN OCHOA**ren "Cuba" argazki erakusketa. *Arrate Kultur Elkarte.*

**lehiaketak**

- **Li (buru-hausgarriak).**  
*Apirilaren 17tik aurrera, umeen liburutegian (LH-ko 2. mailatik aurrerakoentzat).*

**farmaziak**

- 25, barixakua**  
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)  
GAUEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
- 26, zapateria**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- 27, domeka**  
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- 28, astelehena**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 29, martitzena**  
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)  
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- 30, eguaztena**  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- 31, eguena**  
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)  
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
- 1, barixakua**  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

**telefono jakingarriak**

- SOS delak .....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas .....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia .....943 03 26 50
- Errepideak .....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa .....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

**autobus ordutegiak**

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 15.30 eta 18.30.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

**tren ordutegiak**

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

**zinea Coliseoan**

**(1 ARETOAN)**  
25ean: 22.30  
26an: 17.00, 19.45, 22.30  
27an: 17.00, 20.00  
28an: 20.30

**"Safe"**  
Zuzendaria: Boaz Yakin



**(2 ARETOAN)**  
25ean: 22.30  
26an: 17.00, 19.45, 22.30  
27an: 17.00, 20.00  
28an: 20.30

**"Mi hijo y yo"**  
Zuzendaria: Philippe Guillard



**(ANTZOKIAN)**  
25ean: 22.30  
26an: 17.00, 19.45, 22.30  
27an: 17.00, 20.00  
28an: 20.30

**"Men In Black 3"**  
Zuzendaria: Barry Sonnenfeld



## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Babes Ofizialeko pisua salgai Urki-Kurutzekuan. Beharrezkoa da zerrendetan egotea. Tel. 617-099029.
- Pisua salgai Eibar erdi aldean (Ubitxa). 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa. Bizitzera sartzeko moduan. Oso merke. Tel. 685-732596.
- Pisua salgai Eibar erdi aldean. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi eta trasteroa. 130 m<sup>2</sup>. Igogailua. Guztiz berriztua eta argitsua. Tel. 626-203838.
- Pisua salgai Eibar erdialdean (Eibarko Txikito). Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailuarekin. 150.000 euro. Tel. 672-622774.
- Atikoa salgai Eibarren, Ardantzan. 72 m<sup>2</sup>. Logela bat, egongela, sukaldea eta komuna. 17 m<sup>2</sup>ko terraza. Berria. Hegoaldera begira. Garajea eta trasteroa aukeran. 212.500 euro. Tel. 647-952677.
- Pisua salgai Amañako plazoletan. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Dena kanpora begira. 100.000 euro. Tel. 685-728995.
- Pisua salduko edo aldatuko nuke Bidebarrieta kalean. Handia, kanpora begira eta ganbarekin. Teilatua eta fatxadak berritze prozesuan. Prezio interesgarria. Tel. 650-896485.

### 1.2. Errentan

- Oporretarako apartamentua alokagai Ezkaray-n. Prest 4 lagunentzat. Igogailua, garajea eta igerilekua. Tel. 639-176239.
- Pisua alokagai Elgetan. Ia berria. 2 logela, egongela-jangela, sukalde osotua eta bi komun. Tel. 606-083992.
- Apartamentu txikia alokagai Donostian uztailerako. Hondartzaren ondoren. 3-4 lagunentzat. 1.400 euro lau aste. Tel. 675-712886.
- Hiru logelako pisua behar dut Eibarren. Tel. 652-532589.
- Oporretarako pisua alokagai Santonñan. Logela bi. Inguru lasaia, hondartzetatik gertu. Tel. 669-980932.
- Pisua alokagai Ubitxa kalean. 2 logela. Igogailua eta kalefakzioa. Sartzeko moduan. Tel. 685-732596.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

- Karro-denda salgai. Oso egoera onean. Sekulako aukera. 1.200 euro. Tel. 617-808785.
- Fiat Ducato autokarabana salgai. 1994. urtekoa. 5-6 plaza. Oso egoera onean. Guztiz ekipatuta. 15.900 euro. Tel. 671-841563.
- Mobilhome salgai Iratzen (Nafarroa). 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, portxea eta lorategia. Ureztatze automatikoa. Oso prezio onean. Tel. 670-593605.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Roller 400S karabana salgai. Lonjan gordetakoa eta egoera onean. 4.200 euro. Tel. 679-310083.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Lokala salgai Ubitxan. Kaletik sarre-za zuzena. Argi instalazioa eta komunarekin. Tel. 617-688311. Maria.
- Lokala salgai Urkizu dorreetan. 85 m<sup>2</sup>. Prezioa adosteko. Deitu 13.00etik 16.00etara eta 20.00etatik 22.00etara. Tel. 943-201727.

### 3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Jose Antonio Gisasola kalean. Tel. 943-201140 eta 610-698277.
- Garajea alokagai Abontzan. 2. pisuan, garbitegiarekin. Tel. 617-736527.
- Behaldea alokagai Ubitxan. 100 m<sup>2</sup>. Argi-instalazioa eta komunarekin. Tel. 617-688311. Maria.
- Garajea alokagai. Tel. 617-688311. Maria.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Estetizista euskalduna eskaintzen da erlaxatzeko masajeak eta makilajeak egiteko. Esperientzia. Tel. 617-718035.
- Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernetan, garbiketara eta mendian lan egiteko. Erreferentziak. Tel. 682-290521.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 638-849391.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Deitu 19.00etatik aurrera. Tel. 658-757251.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 686-052084.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 679-946934.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 943-257815 eta 692-332871.

- Mutila eskaintzen da taberna eta jangeletan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 692-332871.

- Gizonezkoa eskaintzen da edozein pintore lanetarako. Tel. 622-573180.

- Emakumea eskaintzen da udan umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia asko. Tel. 680-463892.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Orduka. Tel. 943-821537.

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 697-730662.

- Emakumea eskaintzen da garbiketara egiteko. Tel. 636-517025.

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 647-175093.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketara egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 608-147559.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketara egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 638-249735.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Tel. 617-181350.

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Orduka. Tel. 648-603029.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 646-176549.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 636-423493.

- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 675-607031.

- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 634-887814.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 669-966611.

- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Gidatzeko kametarekin. Tel. 632-798768.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 646-778839.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-910182.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 675-007271.

- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Esperientzia. Tel. 660-723780.

- Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Esperientzia. Tel. 672-691958.

- Neska euskalduna eskaintzen da tabernak, elkarteak eta porgor garbitzeko. Tel. 637-276278.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 699-232823.

- Arotza eskaintzen da. Esperientzia. Tel. 654-453268.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Irakasle tituludunak LH eta DBH-ko klase partikularrak ematen ditu. Esperientzia eta fakturekin. Tel. 636-385156.

- Magisteritzan diplomatutako mutilak LH eta DBHko klase partikularrak ematen ditu. Tel. 651-503971.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Taberna itxi dugula-eta, kafetegirako makinaria eta altzariak salgai. Tel. 676-753898.

- 2. eskuko Bugaboo-bee ume karroa erosiko nuke. Tel. 678-045605.

- Bikiendako bi kapotadun auklia salgai. Fishwell markakoa. 450 euro. Tel. 669-346335.

- Erropa lehertzeko makina salgai. Balay SP 817. 150 euro. Tel. 626-144098.

- Umeak zaintzeko walkie-talkieak (Avent) salgai. Erabili gabe. 30 euro. Tel. 626-144098.

### 6.3. Galdu/Aurkitu


- Maiatzaren 4ean zilarrezko belarritakoa aurkitu nuen San Andres ikastetxetik gertu. Tel. 943-200345.

- Betaurrekoendako funda aurkitu nuen hilaren 6an Arraten. Tel. 658-729228.

- Musikako euskarazko liburua aurkitu nuen Urkizu inguruan. Tel. 943-121373. Maite.

### 6.4. Bestelakoak

- Egunero Eibartik Donostiara lanera joateko jende bila nabil. Eibarren 07.00etatik irten eta Donostiatik (ospitaleetatik) 15.00etan bueltatzeko. Tel. 656-764762.



**Debegesa**

Debabarreneko Garapen  
Ekonomikarako Elkartea

Sociedad para el Desarrollo  
Económico de Debabarrena

**Debabarrena  
Ekinean!**

## **Ekintzailearen Eguna 2012: Maiatzak 30**

- 18:00-18:30.** Debabarrena Ekinean! Enpresen Azoka.
- 18:30-18:40.** Ongi-etorria. Debegesako Zuzendari Nagusi Juan Angel Balbasen eskutik.
- 18:40-19:10.** Hitzaldia: "Pentsamendu berriak, errealitate berria, jarduera berriak", Isabel Santiagoren eskutik. Eta Debabarreneko Ekingune ekimenaren aurkezpena.
- 19:10-19:30.** 2012ko Debabarrena Ekinean! Errekonozimenduak. TALDE-LANA, PLUS EKIMENA eta IRAUNKORTASUNA. BAI INDUSTRIARI! errekonozimendua.
- 19:30.** Ardo-dastaketa HERAS CORDON upeltegiaren eskutik, BACOLEKU ardotegiaren bitartez, eta hestebete dastatzea FELIX SANCHEZEN eskutik.

**DEBEGESA. Azitain Industrialdea, 3 bis (Eibar)**

**Konfirmazioa:** [debabarrenaemprende@gmail.com](mailto:debabarrenaemprende@gmail.com) / 943 82 01 10

 [facebook.com/debabarrenaekinean](https://facebook.com/debabarrenaekinean)

 @ekinean



# **100 urte etorkizuna sortzen**



- FABRIKAZIO MEKANIKOA
- MANTENIMENDUA
- MEKATRONIKA
- ROBOTIKA
- ELEKTRIZITATEA
- ELEKTRONIKA
- AUTOMATISMOAK
- TELEKOMUNIKABIDEAK-  
INFORMATIKA

**Izenematea: Maiatzaren 28tik ekainaren 8arte**

**Isasi, 36 - 20600 Eibar - Tfno. 943 20 32 44 - e-mail: [eibar@armeriaeskola.com](mailto:eibar@armeriaeskola.com)**

**[www.armeriaeskola.com](http://www.armeriaeskola.com)**



RPS 04/02

# IRAZABAL


---

## clínica dental

**DOKTOREAK: Antonio Murillo / Ainhoa Zulueta / Susana Sierra / Maitane G. Iñiguez**

*hartz-zuritzea*

**Irazabal klinikan  
hartzak zurituko  
dizugu saio bakarrean**




*Prezio  
bereziaak!!!*

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostegunera: 10-14 eta 16-20h / Ostiraletan: 10-14 eta 15-19h

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com) - [info@clinicairazabal.com](mailto:info@clinicairazabal.com)



**UROLA IKASTOLA**  
AZKOITIA - AZPETA BIII  
LARRIDE BEZIKETA SAILA



## INSTALAZIOA ETA ALTZARI HORNIKUNTZA

(L.H. / F.P. - Erdi mailako ziklo berria)

**AURREMATRIKULAZIOA**  
Maiatzaren 28tik ekainaren 8ra

**HIRU URTETAN ERDI MAILAKO  
BI TITULAZIO LOR DITZAKEZU:**

- Instalazioa eta altzari hornikuntza
- Arotzeria eta altzarigintza

**Urtetik:** Uztailak 5etik 11ra

**PRAKTIKAK ATZERRIAN (LEONARDO) NAHIZ BERTAN**

Altamira auzoa, Azkoitia • 943 85 21 74 • [azkoitia@urola.org](mailto:azkoitia@urola.org)

[www.urola.org](http://www.urola.org)

